NAHIKUE DA!!

ITXI ZUEN HERRIXE ETA ZUEN HERRIKIDIEK BAKIEN!

BANDALISMO-EKINTZAK EZIN DIRA ONARTU:

- **Eguneko zentroa:** noiz behinka, oraindik ere gure nagusiak patata eta arraultzekin erasotzen dituzte, horrek dakarren arriskuarekin!
- **Zuhaitz bat apurtu:** frontoi inguruan zuhaitz bat arrankatu dute gaurko gauean eta ping-pongera bota.

- **Ekintza kulturalak:** bat edo beste saboteatzen ahalegindu dira.
- **Herritar batzuen etxeen kontra:** arraultzak eta frutak botatzen dituzte.

- **Kontenedoreak:** lekuz mugitu eta bide erdian jartzen dituzte, bertako zaborra sakabanatuta utziz.
- **Zikinkeria:** ia asteburu guztietan agertzen da parkea, ur parkea eta eskola azpia zikin eta kristal txikiz beteta.

Parkeko mahai bat gutxiago dugu.

- Oinarrietatik atera eta eskola azpira eraman zuten. Ez dute ezer eskatu ez eskolan ez udaletxean.
- 6 mahaietatik 5 oso ondo lotu ziren lurrera (Santana eta Parkean). Asteburuan seigarren hori hormigoi zapata eta guzti, arrankatu eta arrastaka eskolara eraman dute, guztiz apuztuz.
- Beraz, mahai bat gutxiago dugu orain.

eta abar...

UME, GAZTETXO, GAZTE, HELDU, GURASO, EZ-GURASO... ELKARBIZITZA ON BATEN ALDE HORRELAKORIK EZ EGIN, EZ ONARTU!

ARAMAIXO
bizi